

E

Esploratzaileak hegazkinez egin zituen bidaia gehienak, baina arazo larriak izan zituen hegazkina lurreratu behar zuenean. Horregatik, jausgailua asmatu zuen.

Gazte-gaztea zenean zuhaitz batera igo zen eta nahi beste okaran lapurtzen ibili ondoren kakalarria etorri zitzaion, eta presaren ondorioz ez zuen beste aukerarik izan prakak jaitsi eta zuhaitzetik behera egitea baino.

Edinburgon, **1826an**, unibertsitateko bigarren urtean, landareen sailkapena nola egiten zen ikasi zuen.

Medikuntza-ikasketak utzi eta Cambridgera joan zen beste ikasketa batzuk egitera. Urte horretako udan geologia ikastaro bat egiteko izena eman zuen eta Galeseko estratu-mapak sortzen aritu zen.

Bidaiaik itzuli ondoren, ospe handia lortu zuen bere ikerketak zirela medio, eta, bidaian zehar jasotako guztia ikertu eta sailkatu ondoren, bere teoria islatzen zuen "Espezieen jatorriaz" (*On the Origin of Species* du jatorrizko izenburua) liburua argitaratu zuen **1859**. urtean. Gizakien eta espezieen garapena ulertzeko teoria da.

Ingalaterrako Shrewsbury herrian jaio zen **1809**ko otsailaren 12an. Zortzi urte zituela, naturaren historiari buruzko interesa bizia zuen eta intsektu bildumak osatzen hasita zegoen.

Aita medikua zuen eta **1825**eko udan aitak mediku laguntzaile moduan bidali zuen Shropshirera. Uda ondoren, Edinburgoko unibertsitatera bidali zuten medikuntza ikastera, baina klaseak astunak iruditu zitzaizkion, kirurgia batez ere.

Fitzroyren proposamenari erantzunez, esploratzaile gazteak denbora gehiena ikerketa geologikoak eta landare zein animalia epezien aleak jasotzen eman zuen. Bidaia osoan zehar, esploratzaileak oharrak jaso zituen eta aurkikuntzak Cambridgera bidaltzen zituen erregulariki. Urte haietan, senitartekoekin posta truke luzea izan zuen eta esploratzaileak, aurrerago, bidaiaren egunkaria osatu zuen eskutitz haiekin.

Bidaiaren lehenengo eskala Cabo Verden egin zuten; ondoren, Brasilera abiatu ziren. Hango baso tropikala ikusita, liluraturik gelditu zen. Gero Argentinara nabigatu zuten eta ugaztun erraldoien fosilak aurkitu zituzten. Aurkikuntza horiek bere teoriaren oinarria ezarri zuten.

Beste toki batzuetan ere, esaterako, Suaren Lurraldean, Txilen, Galapagoetan, Australian eta abar, antzeko aurkikuntzak egin eta hainbat froga jaso zituen.

Etxera bueltatu zenean, R. Fitzroyk itsas bidaia bat egitea eskaini zion naturalista moduan, Hego Amerikako kostaldea kartografiatzeko. Beagle ontzian egindako bidaiak bost urte iraun zuen: **1831**. urtean abiatu ziren, eta **1836an** bueltatu.